

**DOKUMENTAZIO EMATEA UNIBERTSITATE ETA IKERKETAKO SAILBURUORDETZAREN
PROZEDURETARAKO**

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duenak, hirugarren xedapen gehigarrian eten egin du abian diren administrazio-prozedurak izapidetzeko ezarritako epeen zenbaketa.

Zenbaketa hori hasiko da berriro Errege Dekretu hori edo, hala badagokio, haren luzapenak indarra galtzen duenean.

Epeen zenbaketari berrekiteko, prozedura bakoitzean eten diren egunak hartuko dira kontuan, eta horren berri emango da web orri honetan.

Xedapenak berariaz eragin die honako prozesu hauei:

- Unibertsitate beken behin betiko ebazpenen aurkako gora jotzeko errekurtsioak.
- Administrazio eskudunak eskatutako dokumentazioa entregatzea.
- Ikertzaile doktoreentzako Mugikortasun Programaren ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsioa.

Eta, era beran, epeak irekitzea ekarri duten beste administrazio-prozedurei banakakoei edo kolektiboiei.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 17a

Adolfo Morais Ezquerro
Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN